



ALDEZ AURREKO KONTSULTA, ZERGA PLANGINTZAKO MUGAZ GAINDIKO MEKANISMOEI BURUZKO INFORMAZIO BETEBEHAR BERRIAK GARATZEN DITUEN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUARI BURUZKOA.

Bat etorri zedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten dituen maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuarekin, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Onetsi nahi den arauaren beharra eta egokitasuna
- c) Arauaren helburuak
- d) Izan daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak)

Aurrekoa betez, kontsulta hau egiten da herritarren eta erakunde ordezkarien iritzia jaso ahal izateko; izan ere, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau orokorra garatuko duen xedapenak eragin litzake, aldatu baita Europar Batasuneko Zuzenbideak Arabako zerga araudiari egindako transposizioaren ondorioz, zehazki, 2011/16/EB zuzentaraua aldatzen duen Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 25eko 2018/822 zuzentaraua (EB), zergagintzan, informazioa jakinarazi beharreko mugaz gaindiko mekanismoei dagokienez, informazioaren trukaketa automatiko eta ezinbestekoa dela eta.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, abenduaren 17ra arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.

AURREKARIAK	Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau orokorra garatu nahi du aztergai den foru dekretuak.
--------------------	--



KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	Arau proiektu honen helburua da garatzea Europar Batasuneko Zuzenbideak Arabako zerga araudiari egindako transposizioa, hain zuzen, 2011/16/EB zuzentaraua aldatzen duen Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 25eko 2018/822 zuzentaraua (EB), zergagintzan, informazioa jakinarazi beharreko mugaz gaindiko mekanismoei dagokienez, informazioaren trukaketa automatiko eta ezinbestekoa dela eta.
ONETSI NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA	Zuzentarauak agindu bat finkatzen du estatu kideek haren edukiaren transposizioa egin dezaten.
HELBURUAK	<p>1. Europar Batasuneko Zuzenbideak Arabako zerga araudiari egin beharreko transposizioa betetzea, hain zuzen, 2011/16/EB zuzentaraua aldatzen duen Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 25eko 2018/822 zuzentaraua (EB), zergagintzan, informazioa jakinarazi beharreko mugaz gaindiko mekanismoei dagokienez, informazioaren trukaketa automatiko eta ezinbestekoa dela eta, eta garatzea zergagintzaren foru arau orokorrean zuzentarau horren ondorioz izandako aldaketak.</p> <p>2. Informazioa lortzea aitortu behar diren eta estatu kide biri edo estatu kide bati eta hirugarren herrialde bati eragiten dien zerga plangintza erasokorreko eragiketei buruz, nazioarteko zerga gardentasuneko egungo testuinguruan.</p>



	<p>3. Saihesbideko zerga eragiketak egiteko asmoa kentzea. Azken finean, zerga iruzurra prebenitu eta haren aurka egiteko neurri eraginkorrak ezartzea.</p>
<p>EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)</p>	<p>Transposizioak ez du uzten erregulazio gabeko beste alternatibarik ebaluatzen eta, beste alde batetik, egin nahi den araua erregelamendu mailako arauzko xedapen baten bidez garatu behar da.</p>